

Nola idatzi...

# Medikuntza

Wikipedia editatzean, batzuetan beldur pixka bat ere izaten dute hasiberriek; bereziki, eskolako lan baterako lehendabiziko aldiz Wikipediara ekarpena egiten ari diren ikasleek. Gida hau Wikipediara historiari buruzko edukiak gehitzeko lana eman zaien ikasleentzat da.

## Izan zaitez zehatza

Wikipedia baliabide bat da, milioika pertsonak historiari buruzko informazioa jasotzeko erabiltzen dutena. Wikipedian historiari buruz irakurtzeko arrazoiak historia bezain askotarikoak dira. Pertsona eta gertaera historikoei buruzko eduki zehatz eta objektiboak dokumentatuz eta partekatuz, lagunduko duzu ziurtatzen mundu osoko jendeak giza jakintzaren eremu zabalago bat duela eskura.

## Uler itzazu jarraibideak

Har ezazu denbora, hemengo iradokizunak irakurri eta ulertzeko; iradokizun hauek Wikipediara egiten dituzun ekarpenei baliorik handiena emateko bidea emango dizute. Jarraibide hauek betetzen ez dituen zerbait argitaratzen baduzu, hori konpontzeak denbora eta ahalegina eska dezake: edukia hobetzen eman zenezakeen denbora eta ahalegin bat. Jarraibide hauen barruan lan egiten eroso sentitzen ez bazara, esaiozu zure irakasleari ea Wikipediaz kanpoko lanen bat emango dizun.

## Jardun ezazu beste editoreekin

Wikipediako esperientziaren parte bat da beste editore batzuen iritziak jaso eta haiei erantzutea. Ez itxaron azken eguneraino ekarpen bat egiteko; bestela, ohar eta iradokizun lagungarriak galduko dituzu. Wikilariak zure lanari buruzko galderei erantzun diezaiekete, edo beharbada galderak egingo dizkizute. Galderarik egiten badizute, erantzun iezaiezu. Esker-

tu iezaiezu emandako laguntza, eta lan egizu haiekin batera, artikulua hobetzeko. Beharbada aldaketak egingo dizkiote zure lanari; edo, jarraibide hauek betetzen ez baditu, artikulutik ezabatuko dute. Horrela gertatzen bada, ez ezazu berriz eduki hori sartu besterik gabe! Galdetu iezaiozu edizioa egin duenari, ea zergatik egin duen, eta ea nola hobetu dezakezun. Eztabaida funtsezko osagaia da Wikipediako prozesuan.

## Saihestu ezazu hurbiletik parafraseatzea

Erabil itzazu zeure hitzak. Plagioa egitea, testuak kopiatuz edo hurbiletik parafraseatuz (hau da, hitz gehienak aldatuz, baina testu originalaren egitura eta esanahia mantenduz), arauen kontrakoa da.

Plagioa egitea zure unibertsitateko ohore lege akademikoa urratzea da. Plagioari, Wikipedian, beste wikilari batzuek antzemango diote, edo tresna automatikoei. Hori gertatzen denean, beharbada zure lana ezabatuko dute, eta online erregistratuta geratuko da plagio gertaera bat zure kontuari lotuta. Baliabide eta autore estandarrak ere —hala nola ikasliburuak— egile eskubideen pean daude, eta inoiz ez dira zuzenean kopiatu behar. Plagioari buruzko arauak Wikipediako alde guztietan aplikatzen dira, baita zure proba orriko zirriborro eta oharrei dagokienez ere.

Arazo hori saihesteko modurik onena da ziurtatzea zeure materiala benetan ulertzen duzula, eta horri buruz zeure hitzekin idazten duzula. Hurbiletik parafraseatzea zer den garbi ez badakizu, jar zaitez harremanetan zure unibertsitateko Euskara Zerbitzuarekin.

## Jar ezazu zeure aletxo

Har ezazu astia arauak eta jarraibideak ulertzeko. Beharbada beldurgarri samarrak irudituko zaizkizu, baina aurki zure jakintzen eta zentzuaren ekarpena egiten ari zure zara, zuk eta milioika lagun gehiagok egunero erabiltzen duzuen baliabide batera.

## Artikulu bat aukeratzea

Oro har, egin iezaezu kasu jarraibide hauei, medikuntzako zein artikulu hobetu behar duzun erabakitzean:

- Aukera ezazu Wikipedian oraindik ondo garatu ez den gai bat. Bilatu zirriborroak diren artikuluak.
- Aukera ezazu gaikideek berrikusitako aldizkari edo liburuetan literatura ugari duen gai bat. Wikipediako artikulu batzuk laburrak dira eta horrela irauango dute; izan ere, ez dago horiek hedatzeko aski iturri fidagarririk. Gogoan izan ezazu Wikipedian medikuntzaren arloan iturriak aipatzeari buruzko eskakizunak zozrotzak direla.
- Ikerlanen literaturarekin ohituta ez bazaude, beharbada hobe izango duzu lehendabizi iturri interesgarriak bilatzea, eta gero Wikipediako zein artikulu garatuko duzun aukeratzea.

## Idazten ari zaren artikula antolatzea

Artikulu bakoitza bakarra da, baina badira atal orokor batzuk, irakurleek eta beste wikilariak zuk idatzitako artikuluan aurkitzea espero izango dutenak. Hona hemen gaixotasunei buruzko artikuluetarako eskema orokor bat. Gainerakoan, artikulu nabarmenduen zerrendan medikuntzakoak begira ditzakezu, ea beste wikilariak zerkusia duten gaietako artikulua nola antolatu dituzten ikusteko.

### Gaixotasunei, nahasmenduei edo sindromei buruz idaztea:

- Sailkapena, halakorik baldin badu. Diagnosiaren azpialat gisa ere jar daiteke.
- Seinaleak eta sintomak edo ezaugarriak.
- Kausak: Hor sartzen dira arrisku faktoreak, abiarazleak, genetika edo genoma alderdiak, biologia

(adibidez: egitura/morfologia eta erreplikazioa).

- Mekanismoa: Patofisiologiari buruzko informazioa.
- Diagnostika: Hor sartzen dira biopsia aurkikuntza ohikoak eta diagnosi diferentziala.
- Prebentzioa edo miaketak.

### Tratamenduari edo kudeaketari buruz idaztea:

- Hor sar daitezke egun erabiltzen den edozein motatako tratamendua, hala nola dieta, ariketa, medikazioa, zaintza aringarria, terapia fisikoa, psikoterapia, nork bere burua zaintzea, kirurgia, itxarote ernea, eta beste aukera asko.
- Beharbada, egokia izango duzu tratamenduak saia litezkeen ordena probable batean jartzea, edo lehendabizi tratamendurik ohikoenak azaltzea. Atal honetan, saihestu itzazu tratamendu esperimental edo espekulatiboak, eta prebentzio neurriak (esaterako: txerto profilaktikoak edota infekzioa saihesteko teknikak).
- Wikipedia artikulua ez lirateke idatzi behar «nola egin hau» estiloan, baina horrek ez du eragotzi behar tratamendu edo kudeaketetarako jarraibide ofizialak adieraztea, baldin jarraibide horiek modu objektiboan eta medikuntzaren aldetik fidagarriak diren iturriekin aurkez badaitezke.
- Emaizak: Prognosia. Atalaren izenburua «Emaizta posibleak» ere izan daiteke.
- Epidemiologia: Intzidentzia, prebalentzia, adin banaketa, sexu ratioa, eta antzeko faktoreak.

### Kontuan hartu beharreko beste gai batzuk:

- Historia: Hastapenetako aurkikuntzak, pertsona historikoak, eta tratamendu zaharkituak (ez sartu pazienteen historia).
- Gizartea eta kultura: Hor sartu daitezke gizarte estigma, ekonomia alderdiak, erlijio alderdiak, kontzientziarioa, lege alderdiak, kasu nabariak.
- Ikertze jarraibideak: Ez sartu ez badute aipatu iturri nabarmenetan. Saihestu «Ikerketa gehiago behar da» eta antzeko adierazpen alferrikakoak. Wikipedia ez da saiakera klinikoan edo ikertzaileen katalogo bat.
- Gizatalde bereziak, hala nola pertsona zaharrak, haurdunak edo haurrak.

## Iturriak ebaluatzea

### Bigarren mailako iturriak

Iturri horiek lehen edo bigarren mailako iturri bat edo gehiago laburbiltzen dituzte. Eskuarki, helburutzat dute medikuntzako gai bati buruz une horretan dagoen ulkeraren ikuspegi orokor bat ematea, edo gomendioak ematea, edo ikerlan batzuen emaitzak konbinatzea. Mota hauek izan daitezke:

- Literatura-aztertzeak edo medikuntza aldizkari fidagarrietan aurkitutako azterketa sistematikoak.
- Liburu akademiko eta profesionalak, dagokion gai-ko adituek idatziak, izen oneko argitaratzaile batek argitaratuak.
- Estatu batean edo nazioartean onarpena duten aditu elkarteek emandako medikuntza jarraibideak edo jarrera adierazpenak.

### Gai hauetarako, ez erabili iturri hauek:

- Lehen mailako iturriak, hau da, ikerlanean zuzenean parte hartu dutenen edo beren esperientzia pertsonalak dokumentatu dituztenen lanak (konparazio baterako, bere pazienteen miaketek idatzi duen mediku baten lana).
- Medikuntzako aldizkarietan argitaratutako ia txosten guztiak.
- Prentsa orokorreko artikulua.
- Blogak.
- Gaikideek berrikusi ez dituzten beste iturri batzuk.

## Nola txertatu erreferentziak?

Idazten hasten zarenean, gogoan izan itzazu jarraibide hau

Artikuluaren erreferentziak txertatzeari buruzko Wikipediako laguntza eskuragarri dago lasterbide honetan: | lasterbidea [WP:Erref](#).

### Zer da lasterbide bat?

[WP:Erref](#) erako testuari, Wikipedian, lasterbidea deritzo. Horrelako lasterbideak teklea ditzakezu Wikipediako

## Aipa itzazu iturriak

Aipatzen duzun aldizkari artikulua bakoitzerako, PubMed ID (PMID) edo Digital Object Identifier (DOI) kodea izan behar duzu; eta aipatzen duzun liburu bakoitzerako, ISBN zenbakia eta orrialde zenbakia. Horrela, beste wiki-larietarik gehitutako informazioaren zehaztasuna egiaztatatu ahalko dute.

### Erreferentzia bat gehitzea, Ikusizko Editorea erabiliz:

- Artikuluaren goialdean edo atalburuaren eskuinean, klika ezazu «Aldatu» aukeran.s
- Jar ezazu kurtsorea erreferentzia hori jarri nahi duzun artikuluko testu blokearen bukaerara.
- Tresna barran, klika ezazu «Aipatu» aukeran.
- Txertatu nahi duzun erreferentzia liburu bat baldin bada, idatzi haren ISBN zenbakia. Online dagoen iturri bat txertatzeko, idatzi haren URLa. (Badira beste aukerak batzuk, ISBNrik eta URLik ez duten iturrietarako.)
- Gehitu ezazu funtsezko beste edozein datu, hala nola liburuko orrialde zenbakia edo zenbakiak, eta sortu erreferentzia.

### Egitura

GIBaren egitura beste [eretrobirusak](#) ez bezalakoa da. Gutxi gorabehera esferikoa da, [120 nm](#) inguruko [diametroarekin](#), eritizateko handia.

RNA [monokatenario](#) positiboaren bi kopia ditu proteina [erribonukleasa](#) eta [integrasa](#) ere baditu. [bestel](#)

Birusaren osotasuna ziurtatzeko, [kapsida](#) inguratuz [pro](#) inguratzen da. [Bigeruza](#) horretan birusaren proteinak [d](#) txertoen garapenean kontuan hartzekoak izango dira. [riari os](#) [teina](#)

Bertan beheara utzi      Aipamena gehitu

Automatikoa    Eskuz    Berrerabili

URL, DOI, ISBN edo PMC/PMID

## Artikuluia idaztea

Idazten hasten zarenean, gogoan izan itzazu jarraibide hauek:

- Idazten hasten zarenean, gogoan izan itzazu jarraibide hauek:
- Zuk taxututako testuak ez dezala mediku aholkua- ren itxurarik izan. Medikuntzaren arloan onartua den informazioaren deskribapena idatzi behar duzu, datu objektiboetan oinarrituta.
- Eskolako lan gehienetan ez bezala, Wikipedian ez da onartzen ikerketa originalik. Wikipediako artikuluek iturriek diotena jaso behar dute, eta ez zure tesirik.
- Idatz ezazu datuetan oinarrituta, estilo entziklo- pedikoarekin; ez idatzi saiakera baten modura. Ikus ezazu Wikipedia editatzea gida (lotura du zure ikas- taroko orrian), tonuaren ezberdintasuna zein den go- goratu nahi baduzu.
- Artikuluko gaiaren alderdi bakoitzari eman iezaziozu dagokion pisua, gaiari buruzko iturri onartuei jarraituz.
- Gogoan izan ezazu: zu ez bezala, idazten ari zaren artikulua irakurleak ez dira medikuntzako ikas-

leak! Termino teknikoak lehenengo aldiz aipatzean, ahal bada eman ezazu azalpen labur bat, parentesi artean, euskara errazean.

- Gogoan izan ezazu zure irakurleak euskaldun guz- tiak direla. Idatzi euskara batuan.

## Azken gogoetak

- Ez utzi lana azken unerako! Medikuntzaren ikus- pegitik zentzuzkoak diren Wikipedia artikulua idaz- teko, denbora behar da. Ez itxaron azken minutua arte; baina blokeatuta gelditzen bazara, eska iezaziozu irakasleari epe luzeagoa. Hobe duzu hori, Wikipediara jarraibide hauek betetzen ez dituen edukia gehitzea baino.
- Wikipediara ekarpenak egiteari buruzko beste gal- derarik baldin baduzu, idatz ezazu Txokoan. Txoko- ra joateko, bilaketa laukian teklea ezazu | lasterbidea [WP:Txokoa](#).
- Eskerrik asko zure ekarpenengatik! Zure lan gogo- rriari esker, Euskal Wikipedia egunero erabiltzen du- ten milaka lagunek informazio gehiago izango dute eurentzat garrantzitsuak diren gaietarako.



Argitalpen honetan jasotako edukia eta irudiak Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 lizentziaren pean daude erabilgarri, besterik adierazi ez bada.

Wiki Hezkuntzako marka erregistratzekotan dago. Wikipediako logoak eta hitz markak Wikimedia Fundazioaren marka erre- gistratuak dira. Marka horien erabilera Wikimediaren marka politikaren mende dago, eta horiek erabiltzeko beharbada be- harrezkoa izango da baimena ([https://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark\\_policy](https://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark_policy)). Wikipediaren markei buruzko galderak egiteko, idatz ezazu [trademarks@ wikimedia.org](mailto:trademarks@wikimedia.org) helbidera (in- gelesean).

Eskerrik asko wikilari hauei: User:Another Believer, User:Austra- lianRupert, User:Cinderella157, User:Sadads eta User:Wehwalt, gida hau egiteko laguntza baliotsua eman dutelako.

Itzultzailea: Xabier Armendaritz.

